

Gorilak eta gizakiak, uste baino antzekoagoak

Gorilaren genoma deskodetuta, giza genomaren oso antzekoa dela ikusi dute

Gorilaren genoma deskodetu eta aztertu dute nazioarteko zenbait erakundetako ikertzaileek elkarlanean, eta ikusi dute, gure ahaide hurbilena txinpantzea bada ere, genomaren zati batean (% 30ean) gizakiak antzekotasun handiagoa duela gorilekin txinpantzeekin baino.

Gorilaren genoma ezagutzeak beste espezieenarekin alderatzeko aukera ekarri du. Eta gizakiarenarekin eta txinpantzearenarekin alderatuta, eboluzioaren gako batzuk argitu dituzte. Hain zuzen ere, alderdi horretan jarri dute arreta *Nature* aldizkarian argitaratu duten artikuluan.



ARG.: ELHUYAR FUNDAZIOA

Adibidez, jakin dute, eboluzioan, gorilak duela 10 milioi urte banandu zirela txinpantzeengandik eta gizakiengandik. Horrez gain, ikusi dute zentzumenen bidezko pertzepzioarekin, entzumenarekin eta garunaren garapenarekin lotutako geneen eboluzioa oso azkarra izan dela hiruretan, baina, bereziki, pertsonetan eta goriletan. Horrek hitz egiteko gaitasunarekin zerikusia izan dezakeela uste dute ikertzaileek.

Gorilaren genoma deskodetzea giza espeziea eta eboluzioa ikertzeko baliagarria izateaz gain, gorilentzat ere onuragarria izatea espero dute ikertzaileek. Izan ere, espeziea galtzeko arriskuan dago, eta egin duten lanak haiekiko sentiberatasuna areagotzeko balio izatea nahiko lukete.



SAREAN+

Einsteinen dokumentuak sarean

Albert Einsteinen dokumentu guztiak sarean jarriko dituela iragarri du Jerusalemgo Unibertsitate Hebrearrak. Dagoeneko 7.000 bat orri igo dituzte, gaika sailkatuta: Unibertsitate Hebrearrarekiko harremanak, lan zientifikoa, bizitza pertsonala, bizitza publikoa eta judu-herria. Urte honen bukaerarako 80.000 orri inguru igoko dituztela iragarri dute. Igotako dokumentuak www.alberteinstein.info helbidean daude, nahi duenaren eskura, irakurri eta aztertzeko. Ezingo dira deskargatu, dokumentuen jabetza unibertsitatearena baita. ●

Gizonezkoen Y kromosoma ez dago galtzeko arriskuan

Nature aldizkarian argitaratutako ikerketa baten arabera, ez da egia gizonezkoen Y kromosoma galtzen ari dela. Nonbait, batzuek bazuten kezka hori, Y kromosoma gainerakoak baino txikiagoa dela ikusita. Are gehiago, *Nature* aldizkariak berak 2002an atera zuen beste artikulua batean Y kromosoma desagertu egingo zela iragarri zuten Australiako bi zientzialarik.

Alabaina, orain argitaratutako ikerketa horretan, rhesus makakoaren eta giza Y kromosomen eboluzioa aztertu du nazioarteko ikertzaile-talde batek, eta duela 25 milioi urte bi espezieek arbaso bera izan zutenetik, gizonezkoarenak gene bakarra galdu duela ondorioztatu dute. Horregatik uste dute ez dela berehalakoan galduko. ●